

FUNTSEZKO ELKARTZEAK

Pozalagua egoitzak funtzionatzeko ezinbestekoak diren hornitzaileak eta bazkideak zehazten dituen dokumentua da hau. Hornitzaileen artean lehenik Costco eta Macro ditugu, janaria erosteko behar ditugu, batez ere haragia eta arraina erosteko. Ez dugu ez barazkirik ez frutarik erosiko, barazkiak ortuan landatuko ditugulako eta frutak zuhaitzetatik lortuko ditugulako.



Bigarrenik Guvac kooperatiba aipatu behar da, enpresa honek baserriko animaliak elikatzeke produktuak fabrikatzen dituenenez, bertan erosiko dugu gure animaliak elikatzeke janaria. Enpresa hau Karrantzan dago kokatuta, Ambasaguas auzoan hain zuzen ere.

Hirugarrenik Alto Ason garbiketa enpresa kontratatuko dugu egoitza garbitzeko. Bi garbitzaile egongo dira eta bakoitzak pisu bat garbituko du, egoitza ez baita oso handia. Garbitzaileen zerbitzua egunero izango dugu eta enpresa hau aukeratu dugu Karrantzatik gertu dagoelako, hain zuzen ere Asonen, Cantabrian.

Laugarrenik Leroy Merlin dendan erosiko ditugu baratzean beharrezkoak diren tresnak, hala nola inausketa guraizeak edo belarra mozteko makina.

Bosgarrenik Matxako okindegia izango dugu hornitzaile eguneroko ogia eskuratzeko. Ogia egunero erosiko dugu bai janarirako bai afarirako eta okindegi hau Karrantzan dago, Kontxa auzoan hain zuzen.

Azkenik Ekidom enpresarekin lan egingo dugu, plaka solarrak jartzeko eta horrela karbono aztarna murrizteko. Bazkideei dagokienez, Naia, Laia, Naroa eta Uxue izango gara bazkide sortzaileak eta jabeak. Gure artean eramango dugu enpresa hau, hau da, zenbakiak kudeatzeaz eta egoitza osoaren ardura hartzeaz arduratuko gara.